Adib.:

di	ri	fi	sil	li	du	ra	ma	fu	sul	la	ta
do#	re#	fa#	sol#	la#	dob	reb	mib	fa	solb	lab	sib

01-II-27

ERRITMOA

1. urtea

-notak ez dira pentagraman jartzen. Erritmoaren azpian jartzen dituzte noten izenak. Erritmoa txartelen bidez lantzen dute.

2. urtea

-erritmoa denboraren unitate bezala agertzen da eta konpasaren nozioa lantzen hasten da. 2/4 konpasa lantzen da.

3. urtea

-4/4 eta 3/4 konpasak lantzen hasten dira.

4. urtea

-beste motatako konpasak agertzen dira (3/8, 2/2,...)

Goi mailako kurtsoetan

-ez dira folklorean bakarrik oinarritzen. Irakurketa, idazketa eta diktaketa ere lantzen dira

Hasieratik, erritmoa txaloen bidez adierazten da. Metodo guztietan gorputz perkusioa erabiltzen da.

KANTUA

Hasieran belarriz irakasten da, imitazioz eta errepikatuz. Kantatzen duten bitartean, melodian, testuan eta erritmoan adi egon behar dute.

Belarriz landu eta gero, irakurketa eta idazketa lantzean, partituraren bidez ere kantatuko dute. Laugarren mailatik aurrera notazioa menperatzen dutenez, partitura erabiltzen dute.

8. mailan lehen bistako irakurketa on bat egin dezakete (solfeo absolutuan kantatzeko).

ARMONIA

Garrantzitsua da unisonoan ez kantatzea, ze bestela ez da hartzen entonazio ona. 3. mailatik aurrera, ahots bat baino gehiagoko abestiak lantzen dituzte.

1. eta 2. mailetan unisonoan abesten dute, baina piskanaka, polifoniarako orientazio bat ematen zaie ikasleei jokuen bidez.

Polifonia kanonen bidez lantzen dute 3. mailatik aurrera. 7. eta 8. maileta, musikagile ezagunen pasaje polifonikoak erabiltzen dira entzuteko eta kantatzeko.

FORMA

Abestiak aztertzen dituzte, hau da, landu edo praktikatu dituzten obrak aztertu. Entzumena ere lantzen da, irakasleak aipatzen dituen puntuetan atentzioa jarriz. Forma era konbentzionalean lantzen dute: letrekin (**Adib.**: A B A,...). Aurretik entzun eta kantatu egiten dute, eta gero azterketa konbentzionala.

(Liburuko 29, 30, 31 orrietako ariketak).

01-III-6

ORFF Alemania (1895-1982)

Orkesta zuzendaria eta konposagilea izan zen (**Adib.**: Carmina Burana). Aintzinako musika landu zuen pedagogi arloan.

1924an musikaren alfabetizazio lanak hasi zituen, erritmoaren garapenarekin bereziki. Instrumentazioaren interpretazioak erritmoaren garapena lortzeko erabili zituen. Orkestako zenbait instrumentu erabili zituen bere lanerako (**Adib.**: Orff instrumentarioa).

Bere lana Lehen Hezkuntzara zuzendua izan zen; helburu nagusia musikari dagokion garrantzia ematea zen, ez musikariak sortzea. Hala ere, musika irakasleak espezializatua izan beharko zuen.

Bere metodoa globala da (dantza, interpretazioa, konposizioa). Ahozko hizkuntza eredu hartzen du musika eta erritmoa lantzeko. Hitzegitean musika egiten da,erritmoa barnean darama. Hitza lenguaia eta musika arteko loturatzat hartzen zuen.hizkuntzaren ezaugarri erritmikoak landu (**Adib.**: esaera zaharrak, aho korapiloak, errezitatiboak,...) zituen. Guzti hauekin abestiak, dantzak, txaloak,... lantzen dira.

Metodoan lantzen diren ariketak:

-hitz eta esaldiak
-oihartzun erritmikoak
-gorputz perkusioa
-galdera erantzunak
-oihartzun melodikoak
-pultsoa, azentua,...
-ahotsa (instrumentu gisa ulertuta)
-idazketa eta irakurketa

Beraz, metodoaren helburua MUSIKA-HITZA-MUGIMENDUA erlazioa da. Sormena eta inprobisaketa lantzen dira ahozkotasuna eta instrumentuen bidez. Musikaren teoria ere lantzen da, baina bizipenak eta esperimentazioa burutu ondoren. Metodo aktiboa da, haurra jardueraren zentrua delako. Honek musika bizi eta sentitu egin behar du.

MELODIA

Lehendabizi SOL-MI bitartea lantzen da. Ondoren LA, DO, RE, FA eta SI, ordena horretan. Eskala pentatonikoa lantzen da.


Orff-en ustez, SOL-MI bitartea umeen hizkeran sarritan agertzen da, umeen entonazioaren barruan oso bitarte ezaguna da.

Eskala pentatonikoarekin hasten dira, geroago diatonikoa eta eskalak modalak ere lantzen dituzte.

ERRITMOA

Pultsoa lantzearekin hasten dira (ta, ta, ta, ta). Geroago pultso bakoitzean bi golpe (tapa, tapa, tapa, tapa). Bururik gabeko pliken bidez irudikatzen dira.

2/4 (batez ere) eta 6/8 konpasak lantzen dira, konpas bitarrak.



(Liburuko 67. or.-ko ariketak egin ditugu).

Orff-ek bere lanarekin *Schulwerk* bilduma osatu zuen. Hau 5 lankuadernok osatzen dute:

1.-Kuaderno pentatonikoa (4-8 urte)

a)*Erritmika prosodikoa*
b)*Prosodika erritmikoa: ahokorapiloak, esaera zaharrak,...*
c)*erritmika purua: oihartzunak, ostinatoak*
d)*Errima: haurren bertsoetarako erabiltzen direnak*
e)*Pentatonikoa: ostinatoa, abesti laburrak*
f)*Esaldien eraikuntza: galdera-erantzuna,...*
g)*Forma: lied, kanona, rondo*
h)*Abesti herrikoiak*
i)*Ipuinak*

2.-Kuaderno dominantea (8-10 urte)

a)*Erritmika prosodikoa: konpasak, iraupen ezberdinak*
b)*Prosodika erritmikoa: hitzen bidez erritmo ezberdinak*
c)*Prosodia instrumentuen laguntzarekin*

d)Erritmika purua
e)Forma erritmiko eta instrumentalak
f)Ariketa instrumentalak: teknika lantzeko
g)Tonalitatea, modalitatea (I, V, nota pedalak)
i)Armonia: oinarrizko aspektuak (kadentziak, 2 ahotsetarako armonizazioak)
j)Pieza instrumentalak: folklorean oinarrituz
k)Musika zuzentzeko ariketak

3.-Kuaderno subdominantea (10-12 urte)

a)Erritmika prosodikoa: 5/8, 7/8, 9/8, sinkopak, hirukotxoak
b)Prosodika: hitz eta soinu arteko erlazioa aztertu, errepresentazio eszenikoa,...
c)Ariketa melodikoak: 2m, 7m, 7M, melodien konposizioa (abesteko, txirula), aldakariak, modu ezberdinak, transposizioa
d)Armonia: 2-3 ahotseko kantak, V-IV funtzioen eraginak aztertu
e)Ariketa instrumentalak: teknika, ostinatoa, gradu ezberdinen funtzioak
f)Forma: bariazioak
g)Abesti herrikoiak

4.-Kuaderno minorra (12-14 urte)

a)Erritmika prosodikoa: landutako konpas guztiak, hirukotxo, boskotxo, zortzikotxo, neurketa irregularrak
b)Erritmika purua
c)Ariketa instrumentalak: ostinatoa, eskala ezberdinak
d)Prosodia instrumentala
e)Ariketa instrumental eta bokalak:2, 3, 4 ahotsetarako abestiak instrumentuekin nahiz ahoz (a capela ere bai)
f)Armonia: ahots nahiz instrumentuekin (bajo baten gainean eraiki)
g)Forma: bariazioak
h)Abesti herrikoiak

5.-Abestiak eta obra instrumentalak

Kantu ugariz osaturiko errepertorioa da, bertsio ezberdinak abestu, instrumentuekin jo nahiz dantzatzeko. Aurretik ikasitako guztia osotasun batean lantzeko.

Renger-en arabera (Orff-en ikaslea izana) material guzti hau iharduera ezberdinetan banatzen da:

1.-Hitzegin eta abestu

Ahotsa da guztiok dugun instrumenturik garrantzitsuena. Hitzegitean erritmoa, melodia eta armonia lantzen da. Hitzegin eta abestea umeentzat oinarrizko beharrizanak dira, heldutasun psikosomatikora garama ahotsaren garapen egokiak.

2.-<u>Oinarrizko praktika instrumentala</u>

Perkusiozko instrumentuei garrantzia eman zien; hala ere, aurretik goputzak ematen dituen aukerak kokatzen dira: gorputz perkusioa. Ondoren izango dira perkusiozko instrumentu mugatuak.

3.-<u>Musika entzun</u>

Lau betebehar ditu:

-Motibazioa
-Esploraketa
-Sentsibilizazioa
-Antolaketa

4.-<u>Musikari buruzko informazioa</u>

Musika lantzerakoan, honi buruzko informazioa eman behar zaie ikasleei. Informazio hau musikarekin batera emango da, ez aurretik, ez ondoren.

01-III-20

(Liburuko 69-72 orr.-etako ariketak ikusi ditugu, Orff-ekin amaitzeko)

01-III-27

Willems-i buruzko ariketak egin ditugu

01-IV-2

(Liburuko 48-57 orr. ikusi, Willems-i buruzko ariketak)

01-IV-3

<u>WILLEMS</u> Belgika (1890-1978) Geneva Liburuko 48. or.-tik aurrera


Bere metodoa oinarri filosofiko eta psikologiko hauetan oinarritzen da:

- musika, gizakia eta naturaren artean ematen den batasuna.
- ordenamendu naturalak eta jerarkikoak lantzen ditu (altuerak: grabea-zorrotza)
- musikaren osagaien barneko naturan edo izatean oinarritzen du lana, ez kanpoko elementuetan
- musika hezkuntza garatzeko jarraitu beharreko prozedura ama-hizkuntza ikasteko jarraitzen den bidearen berdina da (era natural batean)
- musika denontzat izan behar da: 4urtetik gora da adin egokia musika ikasteko
- belarria hezi behar da, entzumen musikala eta erritmoa landu daitezke. Ez du onaartzen *honek belarri txarra du* esatea
- metodo globala da, globaltasunetik hasten da elementu zehatzetara joateko (abstrakziora joateko gauza konkretuetatik hasi behar)

- erabiltzen diren elementuak aktiboak izan behar dute, *solfeo bizia*
- erabiltzen den tresneria entzumena, erritmoa eta kantak lantzeko da. Bitarteak lantzeko abesti konkretu batzuk daude metodo honetan; horrela abestia entzutean badakigu bitarteak bereizten
- musikako hiztegian erabiltzen den terminologia erabili behar da.
- eskala diatonikoetan oinarritzen da (mendebaldeko eragina): hiru oinarrizko sinbolo lantzen dira:
  -notak
  -graduak
  -bitarteak (2duna, 3duna,...)
- mugimendu naturalak lantzen dira (martxa, balanzeoa, jiroak,...)

Willems metodoa erabiliz eginiko ariketak:

1.-



gorantzako soinua — beherantzako soinua — soinu mantendua

2.-Entzun, errepikatu, keinuekin errepikatu, grafia bat idatzi eta dena enbolodun flautarekin jo du.

3.-Mailua entzun eta marraztu, azentua ezberdinduz golpeak entzun, errepikatu eta marraztu.

4.-Kanpai ezberdinak ditugu. Materiala eta tamainaren arabera soinua aldatu egingo da (handiena grabeena).

5.-Franelogramaren erabilera. Notak ezagutzen hasitakoan erabil daiteke. Funtsean oihal zati bat da, pentagrama, notak, klabeak,... ditugu. Metodo honetan eskala diatonikoetan eta solfeo absolutuan lantzen dira.

Willems-ek dio hiru entzumen maila bereiz daitezkeela: *oir*, *escuchar* eta *entender*.

-Oir: era fisiologikoan entzuten ditugun estimulu sonoroak. Izaera fisiologikoa.
-Escuchar: era afektiboan entzuten ditugun estimulu sonoroak, guregan eragina dute. Izaera afektiboa.
-Entender: estimulu sonoroa entzun, sentitu eta ulertzen dugunean. Izaera intelektuala.

Hiru mailak elkar lotuak daude.

01-IV-24

JAQUES- DALCROZE Viena (1865-1950) Liburuko 7-21 orr.

Bere ikasketa musikalak Vienan hasi zituen ondorenean Ginebrara joan zelarik ikasketa hauek sakontzera (hainbat urte beranduago, bertan, Dalcroze institutua ezarri zuten, han bere metodologia lantzen zelarik). Bereziki pianojolea zen, inprobisazioa eta armonia ere ikasi bazituen ere.

Ginebrako kontserbatorioan irakasle izan zen. Bere ikasleek musika sentitzeko zituzten arazoez oharturik, metodo bat asmatzen hasi zen (erritmoa ulertu, neurtu,...).

Metodo aktibo baten barruan koka dezakegu. Kontserbatorioko irakaslea izan arren, hezkuntza musikalera zuzendua zegoen bere metodoa, umeekin modu orokorrean lantzeko. Kultura erritmikoarekin bereziki lotuta, gorputzaren bidez erritmoa lantzeko asmatutako metodoa da. Erritmo garapenerako gorputz mugimendua beharrezkoa zela zioen. Entzumena ez zen nahikoa musika ezagutzeko; musikak arimaraino irtsi eta hori entzumena eta gorputz mugimenduaren bidez lortzen da. Obra musikalak fisiko eta psikikoki ulertu behar dira.

ENTZUMENA - ARIMA – GORPUTZA
Hirurak elkar loturik doaz

Metodo honetan zentzu, ezagupen eta erritmo musikala gorputzaren partehartzearen bidez garatzen dira.

- Musika **sentitu** egin behar da: entzumena eta hunkimenak elkartu egin behar dira
- Musika **bizi** egin behar da: musikaltasuna landu behar da
- Musika **barneratu** egin behar da

(Liburuko 10-11 orr.).

Metodo hau gizakiari zuzenduriko hezkuntza erritmikoa eta musikala da. Bere helburua gorputz eta adimen fakultateen koordinaketa lortzea da.

Bere metodoa **GORPUTZ SOLFEOA** (Rítmica Dalcroze) izenarekin izendatu zuen. Bere ustez, psikomotrizitatea eta sormenaren garapenaren esperientzietara ere zabalik dago.

(11-12 orr.-tako ariketak irakurri ditugu).

01-V-8

Justin Bayard WARD (New Jersey 1879-1974 Washington) Liburuko 59-66 orr.

Oso giro musikalean bizi izan zen (bere aita Yew York-eko operako funtdatzaileetariko bat zen). Pianojolea zen, baina 25 urterekin Erdi Aro eta Errenazimentu garaiko musikan murgiltzen hasi zen, Solesmes Monastegi Benediktinoan ezan eta gero.

Kantu Gregorianoaren munduan murgildu zen. Europara eginiko bidaia batean Solesmes monastegi benediktinoan izan zen. Hango monjeek kantu gregorianoa lantzen zuten (nola interpretatzen zen,...) bertan. Hori ikustean, liluraturik geratu zen eta kantu gregorianoan oinarrituriko metodo bat sortu zuen.

Dalcroze ere ezagutu zuen eta honen erritmoa lantzeko ariketak sartu zituen bere metodoaren barruan.

Heziketa musikala, gizakiaren formazio integrala lortzeko bideratu zuen bere metodoaren bitartez. Umeek kantu liturgikoan parte hartzea bultzatzen zuen. Ahotsa bereziki landu zuen, instrumentu musikal moduan ulerturik.

Helburuak:

-afinatuta kantatu
-lehen bistan notak irakurtu
-soinuak ezagutu
-soinuen arteko erlazioak identifikatu

Helburu horiek lantzeko prozedura pedagogikoez baliatzen zen. Prozedura hauek errazak, logikoak eta interesgarriak izatea beharrezkoa zen.

Musikak gizakiarengan eragin handia du, hezitzaile bezala ulertzen zuen Ward-ek. Egin dezakeen eragina positiboa nahiz negatiboa izan daiteke. Modu egokian landu behar da nahi den eragin lortu ahal izateko.

Metodoa 6 urtetatik aplikatu behar zela esaten zuen, heziketa musikal ona lortzeko. Klaseak astean 5 egunetan, egunean 20 minutukoak izango zira. Ikasgelan instrumentu bat (pianoa, organiloa edo diapasoi kromatikoa) beharra zegoen. Abesten hasi aurretik tonua emango zuen eta afinazioa kontrolatu (horretarako behar zen instrumentuen). Mural batzuen baliatzen zen ikasturtean zehar landuko ziren hariketa guztiak egiteko. Irakaslearen lana arte musikalaren hezkuntza eta material eskolarraren arteko harreman eta loturak sortzea zen.

Kantu gregorianoan oinarritzen zenez, tonuez gain moduak ere lantzen zituen.

Musikaren barruan hiru elementu garrantzitsu bereizten zituen:

-ahotsaren kontrola
-entonazio afinatua
-erritmo zehatza

Altuera erlatibo eta absolutua erabiltzen zituen:

-erlatiboa: zenbakiak notak izendatzeko (1,2,3,4,5,6,7)
-absolutua: hizkiak notak izendatzeko (A,B,C,D,E,F,G)

MARTENOT (Paris 1898-1980) Liburuko 32-47 orr.

Teklaku elektrikoaren antzeko instrumentua sortu zuen eta bere lagun Wlhoud konposagileak erabiltzen zuen obra batean.

Pedagogo musikal eta konposagilea zen. Bere garaiko konposagile mugimenduan ere egon zen. Musika lantzeko baliabide berriak aurkitu zituzten XX. mende hasieratik aurrera (tinbreak, eskalak, atonalismoak). Berak interes hori zeukan, bide berriak bilatzeko, eta hori bere metodoan plasmatuko da.

Arrebarekin batera, 1952an metodoaren oinarriak argitaratu zituen liburu batean. Batez ere Frantzian erabili izan zen metodo hau.

Metodoaren ardatzak:

- Haurrak dituen kualitate sortzaileak garatu
- Haurraren ahalmen musikalak piztu
- Bizitzen dena eta azagutzen dena erabili, baita musikan ere
- Musikak sortzen dituen barne sentsazioan bizipenak ondoren teorizatu (lehenengo bizi, gero teoria)
- Lan sensoriala eta intelektualaren bidez irakatsi behar da, baina bakoitzak duen ahalmenaren arabera
- Aspektu fisiko eta psikologikoak lotuta doaz eta kontutan hartu behar da hori
- Sentsibilitate artistikoa bultzatu behar da: artistikoa (plastikoa) eta musikaren artean erlazioa dagoela zioen
- Irakasleak pertsona eta irakasle bezala dituen kualitateak ikasleari transmititu behar dizkio. Ikasleak ere transmititu behar dio irakasleari

Gauza ponderableak edo neur daitezkeenak (edukiak) ebaluatu behar dira, baina baita inponderableak edo neurtu ezin direnak ere (sentimenduak).

Artistak eta hezitzaileak oreka berdina izan behar dute. Askotan ordea balantza ez da orekan egoten. Batzuetan edukiak dira garrantzitsuenak, eta ez dira kontutan hartzen pertsona mailako aspektuak .

Musika irakaslea artista bada ere (irakaslea) hezitzaileaere bada (pertsona).

Metodo honekin gizakiaren garapen integrala lortu nahi da, gizakiaren armonizazio orokorra. Hori lortzeko aspektu hauek lantzea beharrezkoa da:

- sentsibilitate orokorra
- errezeptibitatea

- disziplina eta giza-zentzua
- dominio edo oreka pertsonala
- disponibilitate orokorra

- Metodo hau pedagogia positiboa da, konfidantza giroa sortzen duelako. Kreatibitate eta inprobisazioa ere lantzen direlako ere bai
- Gorputza instrumentu bezala erabiltzen da perzibitzeko, jarduteko eta komunikatzeko
- Montessori-k imitazioa, ezagutza, berregitean oinarritzen zuen pedagogia modernoa; Martenot-ek ideia hau kontutan hartu zuen bere metodoa egiteko orduan.

  - imitazioa ematen da
  - ezagutu egiten du haurrak, errekonozitu
  - erreproduzitzeko gai da

- Erlajazioa sartu zuen bere metodoan. Hau oso berria da.

Teknika beharrezkoa da, baina ez helburu bezala, bide bezala baizik. Bere ustez, hezi egin behar da, ez irakatsi. Bizi, esperimentatu egin behar da. Horretarako erlajazioa proposatu zuen. erlajatzea honela laburtzen zuen:

JAKIN ———— IZATEN JAKIN

EGITEN JAKIN

Musika esperientzia berriak bizitzeko bidea da. Ahotsa lantzen da:

- abestua
- mintzatua.

Aurretik ezagutzen diren kantuak erabiltzen dira musika mintzaira lantzeko, jolasen bidez. Erritmoa eta altuera berriz ez dira asko lantzen.

Solfeo absolutuan oinarritzen da metodo hau. Altuera lantzeko FA hartu zuen grabeena. Lehenengo FA-SOL-LA notak ikasten dira. Willems-en moduan, grafia ez-konbentzionala erabili zuen (altuera adierazteko marrak gora/behera).

01-V-22

PROPOSAMEN BERRIAK

Bi belaunaldi bereizten dira:

- 1900-1950: orain arte ikusi ditugun metodoak
- 1950-2001: proposamen berriak

Lau autore nabaritzen dira proposamen berriak aipatzerakoan: Schafer, Paynter, Dennis eta Self. Lauek ere musika orain arte erabiltzen ez ziren beste parametro batzuetatik ulartzen zuten.

Musika leku guztietan dago; ingurua musikaz beterik dago, beraz entzumena gauza guzti horietan jartzea beharrezkoa da (Schafer: paisaje sonoroa). Autore hauek entzumenean zentratu ziren gehienbat eta baita aspektu sortzailean ere. Edozein baliabiderekin sortu eta landu daiteke musika beraien ustez.

SCHAFER (Canada 1923) Liburuko 73-77 orr.

Canadan ospedun konposagilea izan zen, abanguardiako musikaren munduan (soinu berriak aurkitzeko interesa) garrantzia handia izan zuelarik.

Zarataren legediaren proiektu batean parte hartu zuen; ordura bitartean zeuden ideiak berraztertzearen alde egin zuen. Bere partehartzearen ondorioz, hainbat ideia zabaltzen hasi ziren, hala nola, kutsadura akustikoarena (kutsadura ez baita soilik atmosferan egoten).

Bera irakaslea zen musika hezkuntzako zentru batean. Han, ikasleekin, soinuen mundua berraztertzen hasi eta honen inguruko ideiak berplanteatzen hasi zen. Modu honetan hasi zen bere proposamenak ematen.

Sorkuntza musikala bultzatzen zuen. Sormenean, soinuekin askatasunez esperimentatu behar da. Sentsibilizazio eta kontzientziazio handiagoa eskatzen zuen testuinguru akustikoaren aurrean. Bere ustez, MUSIKA ——► SORKUNTZAREN ITURRIA da.

Ahotsarekin esperimentatzea beharrezkoa da; giza gorputzak duen instrumentu garrantzitsuenetarikoa izanik, eman ditzakeen baliabide guztiak erabili behar dira. Esperimentazioak zentzu sortzailearekin egin beharko dira.

Grafia bereziak proposatu zituen. Egiten zen musika plasmatzeko modu berria proposatu zuen; *grafia analogiko* moduan ezagutzen da (Liburuko 77.or.).

PAYNTER (Ingalaterra 1931) Liburuko 78-82 orr.

Konposagilea izan zen. Sorkuntzari garrantzia handia eman zion musikari abanguardinsta izan zelarik.

Beti aurdura bat izan zuen: musika garaikidea publikoarengandik oso urrun zegoen eta hurbilago egon zedin saiatu zen heziketaren bidez. Musika hezkuntza orokorrean landu beharko litzateke eta horretarako beste arteekin lotzen saiatu zen.

DENNIS Liburuko 85. or.

Konposagile honek ere sormena asko landu zuen. Bere "Proiektuen" bidez, musika eta beste disziplinak modu globalizatuan lantzen zituen (gai zehatz bat hartu eta arlo ezberdinetan landu).

Proposamen B. **SELF** Liburuko 83-84 orr.

Konposagile honek ere sormena landu zuen.

Hezkuntzan, musika egitea, interpretatzea proposatzen du, partiturez baliatuz. Baina erabiltzen zuen grafia ez konbentzionala zen.

*Batzuetan **Tomatis** eta **Wuytack** (Orff-en metodoa landu eta berrikuntzak sartu zizkion) ere metodogile moduan hartzen dira.